

*Euskal  
zinemaren  
hitzordua*

ANTOLATZAILEAK



**EUSKAL  
ZINE  
BILERA**



lekeitioko  
udala

BABESLEAK



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputacion foral

**bbk e**



# 42. EUSKAL ZINE BILERA

LEKEITIO  
2019

LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK  
Maiatzaren 2tik irailaren 30era

[www.zinebilera.eus](http://www.zinebilera.eus)

# LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

42. Euskal Zine Bileran. Lekeitio 2019

**Euskal Zine Bilerako Lehiaketa, euskaraz ekoiztako askotariko lanen erakusleihoa da, teknika, tratamendu, genero, sorkuntza prozesu eta gai desberdinak biltzen dituen neurrian. Iazko formatua mantenduz, aurten ere lehiaketa bateratua izango da, hau da, ez dira bereiziko lan profesional eta amateurak. Hori horrela, zuzendaritza, gidoi eta film onenaren sariak ezberdinduko dira. Eta gainera, ikusleak ere protagonista izango dira, lan bakoitzari haiek emandako puntuaketen bidez erabakiko baitute ikuslearen sari bereziaren irabazlea.**

## PARTE HARTZEA

1 Edozein film egilek har lezake parte Euskal Zine Bileran (EZB).

## LANAK

- 2 EZB denez gero, euskara izango da bilerara aurkezten diren lanetan erabiliko den hizkuntza, filmean elkarrizketak edo off ahotsa erabiltzen badira. Euskara ez den beste hizkuntzaren bat erabiltzen bada, azpigituluak jarriko dira euskaraz eta azpigitulu hauek irudira txertatuta joango dira.
- 3 Lanek gehienez 30 minutu izango dute.
- 4 Edozein genero edo tratamendu zinematografiko lantzen dituzten filmak aurkeztu ahaliko dira. Aukeraketaz kanpo geratuko dira bideoklipak, iragarkiak, spotak eta bideo korporatiboak.
- 5 Ez dira onartuko aurreko urteetako edizioetara aurkezturiko lanak ezta 2018ko urria baino lehen egindakoak.
- 6 Ez dira onartuko arraza, sinesmen, etnia, adin, erlijio, sexu, genero identitate, sexu orientazio, itxura fisiko edo pertsonen gaitasunak iraintzen, gutxiesten edo jasartzen dituzten lanak. Hala eta guztiz ere, antolatzaileek **ez dituzte bere egiten** film laburretan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota isuritako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko inolako **erantzukizunik**.

## IZEN EMATEA

- 7 Pelikulak *online* aurkeztuko dira.
- 8 Pelikula *youtube* edo *vimeo* bezalako kanaletara igo eta pasahitz nahiz link pribatu bidez gorde ostean, Euskal Zine Bilerako webgunean, izen-emate orriarekin batera jarriko dira linka eta/edo pasahitza pelikularen hiru fotograma, kartela (edukiko balu) eta egilearen datu pertsonalak. Webgunean jarritako linka izango da antolakuntzatik lana ikusteko asmoz aukeraketa

batzordeari hasieran eta, aukeratua izanez gero, epaimahaikideei luzatuko zaiena, beraz partaideek linka aldaketarik gabe bere horretan mantentzeko erantzukizuna. Linkaren edozein motako aldaketak lehiaketa parte-hartzeko aukera ukatuko dio partaide/egileari.

- 9 Lanak aurkezteko azken eguna 2018ko irailaren 30a izango da.
- 10 Aurkeztutako lanen aukeraketa Aukeraketa Batzordeak egingo du.

## AUKERAKETA

- 11 Egileei aukeraketaren berri eman ostean, beraien pelikulak mp4 edo mov HD formatoetan bidali beharko dituzte lehiaketa parte hartzeko.
- 12 Lehiaketa parte hartzen duten egileek beraien lanak fase esperimentalean dagoen EZBko ZOOM programa pedagogikoan erabiltzeko baimena ematen diete antolatzaileei. Programa honen helburua herriko ikastetxeetan zinema tresna pedagogiko bezala lantzea da.
- 13 Egileak dira aurkezturiko lanen eskubideen jabeak. Hala ere, lana aurkeztearekin bat egileek baimena ematen diote EZBko antolatzaileei filmen zatiak zinemaldiaren promozioan erabiltzeko. Promozio-lan hori egiteko edozein bitarteko erabil daiteke (internet, argazkiak,...).

## SARIAK

- 14 Lehiaketa hautatuak izanagatik film labur bakoitzaren egileak edo egileak 200 euro jasoko dituzte. Taldeka egindako lanen egileek zenbateko berbera jasoko dute.
- 15 Beheko taulan azaltzen dira EZBn sarituko diren arloak:

ARLOAK	SARIAK
Zuzendaritza	1.600,00 € eta Zilarrezko Antzarra
Gidoia	1.600,00 € eta Zilarrezko Antzarra
Film onena	1.900,00 € eta Urrezko Antzarra
Ikusleen saria	750,00 € eta Zilarrezko Antzarra

\* Sariak erretentzio fiskalari lotuta daude.

- 16 Epaimahaik sariren bat eman gabe uzteko ahalmena du eta bere erabakiak behin betikoak eta alda ezinak dira.
- 17 Sariak jaialdiaren amaierako ekitaldian jakinarazi eta banatuko dira. Irabazleak amaierako ekitaldira sariak jasotzera etorri beharko dira, edo bestela, norbait bidali beharko dute euren orde. **Hau da, sariak eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da irabazle edo honen ordezkaria ekitaldi honetan izatea.**